



EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK

**BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ
DAUKATELA FROGATZEN DUTEN GETXOTARRENTZAT**

**AYUDAS PARA APRENDER EUSKERA PARA
GETXOTARRAS CON**

RECURSOS ECONÓMICOS INSUFICIENTES

2017ko OINARRIAK

1. Oinarri hauek 2017ko irailaren 30era arteko balioa dute.
2. Eskaerak egiteko epea: **2017ko irailaren 30a azken eguna.**

BASES AÑO 2017

1. Estas bases tienen valor hasta el 30 de septiembre de 2017.
2. **Plazo para presentar solicitudes: último día 30 septiembre de 2017.**

OINARRI OROKORRAK

SARRERA

Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzak, 2013ko uztailean ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuen. Getxoko ESEPe datozen urteotako hizkuntza plangintza gidatu nahi du eta euskararen erabilera areagotzea du xede. ESEPe hiru helburu estrategiko batzen ditu bere baitan: euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura, hau da, hizkuntza aberastasuna handitzeko behar diren izapideak eta eguneroko esparru guztiak ukitzen ditu: irakaskuntza, administrazioa, lan-mundua, hedabideak, kirola eta aisia, kultura, publizitatea... eta baita helduen euskalduntzea ere.

1. HELBURUAK

Eskuartearen ditugun laguntzek bi helburu estrategiko dituzte:

1. Euskararen jakite maila sustatzea eta euskara belaunez belaun eta etenik gabe geroratzea.
2. Euskararen erabilera sustatzea: belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin izan dadin lortu nahi dugu.

2. PROZEDURA ETA DIRU LAGUNTZA ILDOAK

Oinarri hauen babesean emango diren diru-laguntzak lehiaketa prozeduraren bidez esleituko dira, beti ere ezarritako kreditu mugak errespetatuz.

Diru-laguntza ildoak hauek izango dira:

2.1.- Euskara ikasteko eta euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak **gizabanakoei** laguntza hauek emango dizkie:

LERROA	KREDITUA
1.- Euskara ikasteko diru-laguntzak baliabide ekonomikorik ez daukatela frogatzen duten getxotarrentzat.	55.360
2.- Euskara ikasteko diru-laguntzak udaleko eta bere autonomiadun erakundeetako langileentzat eta zinegotzientzat.	1.000
3.- Gida-baimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat.	6.000
4.- Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak.	1.000
GUZTIRA	63.360

Lau atal hauetarako agertzen den diru-kopurua gainontzeko ataletako diru-laguntzetarako erabili ahal izango da beti eta, gizabanakoei laguntzak emateko jarritako kreditua gainditzen ez den bitartean.

2.2.- Euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak **enpresei** laguntza hauek emango dizkie:

1.- Diru-laguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko.	7.000
GUZTIRA	7.000

Gizabanakoentzako diru-laguntzen partidako kreditua enpresentzako diru-laguntzetarako erabili ahal izango da eta alderantziz, aurrekontu-partidan kreditu nahikoa dagoen bitartean. Horretarako, alde aurretik, baimendutako gastua bi partiden artean birbanatzeko Tokiko Gobernu Batzako akordioa egon beharko da.

88/2006 Errege Dekretuaren 58. artikulua xedatutakoaren arabera, **22.600 euroko zenbateko gehigarria** jartzen da bi ildoetan erabili ahal izateko baldin eta ebazpena egiteko momentuan kreditu hori erabilgarri badago.

Hala bada, eta beti ere diru-laguntzak emateko ebazpena egin aurretik, kreditu gehigarri hori erabilgarri jartzen dela eta kreditu gehigarria bi atal horietako ildo bakoitzean nola banatzen den argitaratuko du [eskumena duen administrazio-organoak](#). Argitaratzeak ez du esan nahi eskaerak aurkezteko epe berria zabalduko denik.

3. IKASTAROAK

3.1. EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK

Ikastaro presentzialetan	Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan
<p>2016-17 ikasturtean* egindako ikastaroetarako eskaerak baino ez dira onartuko. Beraz, ez dira onartuko ez aurreko ikasturteetan egindako ikastaroetarako laguntza eskaerak ezta datozen ikasturteetan egingo direnetarako ere.</p> <p>*2016-17 ikasturtea: 2016ko urriaren 1ean hasi eta 2017ko irailaren 30ean (biak barne) amaitzen da.</p>	<p>Ikasturte bat baino luzeagoak izan diren autoikaskuntza ikastaroetarako edo ikastaro mistoetarako eskaerak aurkeztu ahal izango dira baina derrigor eskaera aurkezten denean:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikastaroak amaitua behar du izan (baita balizko luzapenak ere). ▪ Eta eskatzaileak baldintzak betetzen dituela ziurtatu. <p>Kasu hauetan eskatzaileak egindako azken ikastaroak 2016-2017 ikasturtean sartuta egon behar du; ez da onartuko aurreko ikasturteetan amaitutako ikastarorik.</p>

Esandakoez gain, ikastaroek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Ikastaroak, HABEK homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
- Ikastaroak ere, HABEK homologatutakoak izango dira.
- Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek jaso, matrikularen kostua ordaintzeko euren enpresen, erakundeen eta abarren diru-laguntza jasotzen duten pertsonen. Enpresak edo erakundeak ordaindutakoa, matrikula osorik estaltzera iristen ez bada, interesdunak falta den zatiari dagokion diru-laguntza eskatu ahal izango du.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.
- Ez dira diruz lagunduko Hizkuntza Eskoletan egindako ikastaroak.
- Ez dira diruz lagunduko mailak egiaztatzeko deialdietan izena emateagatik ordaintzen diren tasak eta ezta agiriak luzatzeagatik ordaintzen direnak ere.
- Ikastaroa hasita ikastaldeetara sartzen diren ikasleen kasuan ez dira diruz lagunduko azken hiruhilekoan hasten direnen eskaerak (urte osoko ikastaroen kasuan).

3.2. GIDABAIMENA LORTZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRU LAGUNTZAK GAZTEENTZAT

Azterketa teorikoa **2016an** edo **2017an** egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik **2016koak** edo **2017koak** beharko dute izan.

3.3. AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRU LAGUNTZAK

Jaurlaritzaren agiri ofizialak **2015-16** edo **2016-2017** ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan lortutako agiriengatik eskaerarik.

3.4. DIRU LAGUNTZAK ERROTULUAK, OLANAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO

Errotulua, olana edo ibilgailu komertziala euskaraz jarri dela ziurtatzeko **facturek 2016ko edo 2017ko data** beharko dute izan.

4. BALDINTZAK ETA ZENBATEKOAK

Euskara ikasteko diru-laguntzei dagokienean, ondoren azaltzen dira bete beharreko baldintzak (**baldintza espezifikoek gain bete beharrekoak**) eta zenbatekoak onartzen dira:

	Ikastaro presentzialetan	Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan
BALDINTZAK (baldintza espezifikoek gain)	Gutxienez, euskaltegian hartutako eskola-ordu guztien %85era joan dela egiaztatuta beharko du.	<p>❶ Eskatzaileak ikasturterako ipinitako helburu-maila gainditu duela egiaztatu beharko du.</p> <p>❷ Bakarkako lanean: euskaltegiak ikasturtearen hasieran eskatzaileari jarri dizkion bakarka egiteko ordu teoriko guztien %50 egin duela egiaztatu beharko du.</p> <p>❸ Tutoretza-ordu guztien %85era joan dela egiaztatu .</p> <p>❹ Mintzamen-ordu guztien %85era joan dela egiaztatu.</p>

	Getxoko euskaltegietan (Udal Euskaltegia, Lauaxeta AEK Euskaltegia eta J.A. Agirre euskaltegia) egindako ikastaro presentzialak	Getxon ez dauden euskaltegietan egindako ikastaro presentzialak	Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan
Diru-	Udalaren diru-laguntza ez da, inolaz ere, matrikula gisa,	Udalaren diru-laguntza ez da, inolaz ere, Getxoko Udala	Udalaren diru-laguntza ez da, inolaz ere, Getxoko Udal Euskaltegian, urte osoko BOGA izeneko ikastaro berarengatik, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.

laguntzaren zenbatekoa	ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.	Euskaltegian ikastaro berarengatik, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.	9 hilabete baino gehiagoko edo gutxiagoko ikastaroa kontratatu duenari egindako hilabeteetako proportzioa ordainduko dio Udalak, baina erreferentziatzen Getxoko Udal Euskaltegian BOGA ikastaroaren matrikula hartuko da (adibidez, BOGA 265 euro ordaindu badira 9 hilabeteko ikastaro batengatik eta eskatzaileak beste zentro batean 18 egin baditu, eskatzaileak 265 € bider 2 jasoko du). Autoikaskuntzako ikastaroak edo mistoak eskaintzen dituzten zenbait zentroan ikasleari luzapenak kontratatzeke aukera ematen zaio. Udalak ez ditu balizko luzapen hauek diruz lagunduko.
-------------------------------	--	---	---

5. ORDAINKETA

Diru-laguntzetarako dagoen diru-kopurua banatuko da **erregistroaren hurrenkerari estuki loturik**, eta beti eta partidan diru nahikoa dagoen bitartean. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko irailaren 30era arteko (barne) sarrera erregistroa (euskara ikasteko laguntzen kasuan) eta 2017ko abenduaren 31ra arteko (barne) sarrera erregistroa (gidabaimena, begirale-zuzendaria eta errotulazioarako laguntzen kasuan) duten eskaerak bideratuko ditu Udalak.

6.- OINARRIEN APLIKAZIOA

2016ko oinarriek jasotzen zutena aplikatuko zaie:	2017ko oinarriek jasotzen dutena aplikatuko zaie
<u>Euskara ikasteko diru-laguntzak:</u> <ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza eskaera 2016ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean (barne) erregistratuta badago. Eta ikastaroa 2016ko irailaren 30a baino lehen amaitu bada. <u>Gidabaimena, aisialdiko begirale-zuzendari agiria eta errotulazioarako diru-laguntzak:</u> <ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza eskaera, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (barne) erregistratuta badago. 	<u>Euskara ikasteko diru-laguntzak:</u> <ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza eskaera, BAOan argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko irailaren 30era arte (barne) erregistratuta badago. Eta ikastaroa 2016ko urriaren 1etik-2017ko irailaren 30era arte egindakoa bada. <u>Gidabaimena, aisialdiko begirale-zuzendari agiria eta errotulazioarako diru-laguntzak:</u> <ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza eskaera, BAOan argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko abenduaren 31ra arte (barne) erregistratuta badago.

7- DIRU LAGUNTZEN OSAGARRITASUNA

Diru-laguntza hauek Eusko Jaurlaritzak edo beste erakunderen batek ematen dituen diru-laguntzen osagarri dira. Hala eta guztiz ere, onuradunak jasotzen dituen diru-laguntzak matrikularen kostua baino handiagoak izatea ekiditeko neurri hauek hartzen dira:

- 1.- HABEren mailaren bat gainditu dutenek Eusko Jaurlaritzak edo beste erakunde batek ematen dituen diru-laguntzak eskatu egin beharko dituzte DERRIGOR.
- 2.- Eusko Jaurlaritzak (HABEren maila bat gainditzeagatik) edo beste erakunde batek diru-laguntza ematen badu, diru-kopuru hori kontuan hartuko du Udalak ikasleei dagokien diru-laguntzetarako. Kasuren batean, onuradunak jasotako diru-laguntzak matrikularen kostua baino handiagoak izango balira, onuradunak Udalaren kontu korrontean sartu beharko luke dagokion kopurua.

8.- EPEAK

DIRULAGUNTZA	EPEA
Euskara ikasteko diru-laguntzak	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko irailaren 30era arte (barne).
Gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko abenduaren 31ra arte (barne).
Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko abenduaren 31ra arte (barne).
Diru-laguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2017ko abenduaren 31ra arte (barne).

9.- EBAZPENA

Diru-laguntza hauek emateko proposamena organo instruktoreak egingo du eta behin diru-laguntzetarako organo kolegiatuaren aldeko txostena izanda, ebazpena Alkateari edo Gobernu Batzordeari dagokio Alkatearen eskumenak eskuordetzeko dekretuak ezarritako zenbatekoaren arabera. Organo instruktorea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.

Diru-laguntza emateko proposamena Getxoko Udaleko Organo Kolegiatuak egingo dio Alkateari. Organo Kolegiatua osatzen duten kideak 2897/2015 dekretuak jasotzen dituenak dira.

10.- ARGITALPENA

Deialdi honen oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholetan (bai arruntean bai elektronikoa) eta Udalaren web gunean argitaratuko dira. Diru-laguntzen ebazpenak ere dagokion Aldizkari Ofizialean ez ezik Udalaren iragarki oholetan (bai arruntean bai elektronikoa) eta Udalaren web gunean ere argitaratuko dira.

OHARRAK

- Euskaltegira joateko ezintasun larrien eta luzeen kasuetan (txosten mediko ofiziala aurkeztu behar), kasu berezi berezietan edo oinarri hauek jasotzen ez den kasuren batean, Euskara Zinegotziak erabakiak hartzeko ahalmena izango du.
- Diru-laguntza gisa Udalak eskatzaileari onartzen dion kopuruari euskaltegiak edo beste batzuk (HABEk...) emandako laguntza kenduko zaio. Laguntza guztiak zenbatuta ezin izango da gain-finantziatorik egon.
- Matrikula erregistroaren hurrenkerari estuki jarraituz abonatu da, aurrekontu-partidan diru nahikoa dagoen bitartean.
- Euskara zinegotziak kasuan kasuko erabakiak hartu ahal izango ditu, gerta daitezkeen eta erabaki honetan jasota ez dauden salbuespenezko kasuetan.

EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTAK BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ DAUKATELA FROGATZEN DUTEN GETXOTARRENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Euskara-eskoletara joan nahi, baina baliabide ekonomikorik ez dutela frogatzen duten pertsonak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak HABEk homologatutako ikastaroak izango dira (**IKUS oinarri orokor hauetako 3. PUNTUA**).
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
- Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek jaso, matrikularen kostua ordaintzeko euren enpresen, erakundeen eta abarren diru-laguntza jasotzen duten pertsonak.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- a) Familia osoaren erroldatze ziurtagiria.
- b) Eskabide inprimakia, kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz.
- c) Euskaltegiko matrikularen ordainagiria zigiluarekin.
- d) Azkeneko Errenta Aitorpenaren fotokopia. Eskatzaileak errenta aitorpena ez badu zertan egin, hori egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria.
- e) Egiaztagiria:

e.1.) Ikastaro presentzialetan asistentzia egiaztagiria. Eskatzaileak, gutxienez, euskaltegian hartutako eskola-ordu guztien %85era joan dela egiaztatu behar du. Horretarako, egiaztagiria honako hauek jasoko ditu: maila, ordutegia, klase orduak orotara, matrikularen zenbatekoa, asistentzia eta egindako urratsak. Udalak ez du jasoko eskatzaileak euskaltegian egindako hutsen frogagiririk.

e.2.) Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan 4 baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:

- ① Eskatzaileak ikasturterako ipinitako **helburu-maila gaintu** duela.
- ② **Bakarkako lanean**: euskaltegiak ikasturtearen hasieran eskatzaileari jarri dizkion bakarka egiteko ordu teoriko guztien %50a egin duela.
- ③ **Tutoretzetan**: euskaltegiak jarritako **tutoretza-ordu guztien %85era** joan dela egiaztatu beharko du.
- ④ **Mintzamen** saioetan ere berdin, **mintzamen-ordu guztien %85era** joan dela egiaztatu beharko du.

Horretarako, egiaztagiria honako hauek jasoko ditu: ikastaro mota (autoikaskuntza edo mistoa), modulua, helburu-maila, asistentzia bakarkako orduetan, asistentzia tutoretza-orduetan, asistentzia mintzamen-orduetan, ikastaroaren hasiera eta amaiera eguna, ikasleak lortutako maila, matrikula prezioa (klaseen prezioa).

- f) Zerga betebeharrak egunean izatea:

f.1.) Ogasunarekin eta Segurantza Sozialarekin. Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Ogasuneko eta Segurantza Sozialeko ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak. Ziurtagiri biak ERANTZUKIZUNAREN AITORPENA izenekoarekin (ikus eranskina) ordezkatu ahal izango dira.

f.2.) Getxoko Udalarekin. Getxoko Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio. Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko diru-laguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio diru-laguntza, ez delako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.

4. ORDAINKETA

Ikus oinarri orokorretan dioena.

5. AURREKONTUA

Ikus oinarri orokorretan dioena.

OHARRAK

- Diru-laguntza hau ez da beste batekin bateragarria izango, guztizkoak matrikularen kostua gainditzen duenean.
- Euskara Zerbitzuak edozein momentutan dokumentazio osagarria eskatzeko aukera izango du.
- Euskara zinegotziak kasuan kasuko erabakiak hartu ahal izango ditu, gerta daitezkeen eta erabaki honetan jasota ez dauden salbuespenezko kasuetan.

DIRU LAGUNTZAK ESKATU AHAL IZATEKO JARRAIBIDEAK

1.- GEHIENEZKO DIRU SARRERAK

Diru-laguntzak eskatu ahal izateko baldintza hauxe izango da: eskatzailearen diru-sarrera likidoek ondorengo formula aplikatuz ateratzen den kopurua ez gainditzea:

Oinarrizko soldata x 14 hilabete x 2,75

ARESTIAN JASOTAKO FORMULA APLIKATZETIK ATERATZEN DIREN KOPURUAK, 2017. urterako, HONAKO HAUEK DIRA:

FAMILIAN ZENBAT KIDE	GEHIENEZKO DIRU-SARRERA LIKIDOAK
1	27.246,45
2	34.984,56
3 edo 3tik gora	38.696,35

- Urteko diru-sarrera likidoen kalkulua, familia unitate bakoitzeko kide guztiek jasotzen dituzten diru-sarrera guztiak kontuan hartuz egingo da.
- Diru-sarrera hauek azkeneko errenta-aitorpenean adierazten direnak izango dira.
- Eskatzaileak errenta-aitorpena egin behar izan ez badu, Haziendaren ziurtagirian jasota dauden diru-sarrerak kontuan hartuko dira.

2.- FAMILIA UNITATEAK

Famili unitateak hauek dira:

- 26 urte baino gehiagoko pertsonak: diru-sarrerarik izan ez badute, haien gurasoekin bizi arren.
- 26 urte edo 26 urte baino gutxiagoko pertsonak: diru-sarrerak izan badituzte, haien gurasoekin bizi arren.
- Errenta-aitorpena era indibidualean egiten dutenak.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan. Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.